

ONDARRABI-KO
Ama Guadalupe-koaren


Ziazaldea edo kondaira

EGILLEA,

ON ALFONSO MARIA ZABALA-KOA
APAIZA.



TOLOSAN:
Ensebio Lopez-en moldiztegian.
1885-garren urtean.





AMERICAN GUARANTEE AND
AGENCY CORPORATION

ONDARRABI-KO
AMA GUADALUPE-KOA,

ONDAHRAH-KO

ONDAHRAH-KO

ONDAHRAH-KO

ONDAHRAH-KO



M. 69556
F. 73497

AV
31340

ONDARRABI-KO

AMA GUADALUPE-KOAREN

Ziazaldea edo kondaira

EGILLEA,

ON ALFONSO MARIA ZABALA-KOA

APAIZA.



TOLOSAN:

Eusebio Lopez-en moldiztegian.

1885-garren urtean.



Es propiedad del Editor,
y se reserva los derechos de
toda traducción.



AMA BIRJIÑA
GUADALUPE-KOA.



APR 18 1871
LIBRARY



Ondarrabicó Ama Guadalupe-koaren ziazaldea edo
kondairá,

DONKITEKOÁ.

ON JOAKIN OLLO-KOA.

Nere apez-aita teneragarria: Nori, zuri ez bada donekidatu nezayoke, nere luma kamutsetik sortu dan lan ez-egoki au? Ondarrabikó Ama Birgiña Guadalupe-koaren gañean, gaur ezin itzik egin liteke, zutaz oroitut gabe. Zue ornitu dezu milla neke eta gasturekin Jesusen Amaren imagiña miragarria arkitzen dan Elizachori, zuk egin dezu orko ezkill-dorre polita, zuk Eliz-barruke koroa eta aldare

atzeko gambarachoa, zuk apaindu dituzu Guadalupeko ingurumariak, zuk jaso dezu mendi zoragarri orretan, menturaz, munduan arkitzen dan arrizko gurutzetik aundiena, zuk eman dizquidatzu Birgiña onen kondaira izkribatzeko berriak; itz batean, zu zera onen pregoilaririk leenena:

Desleyala eta prestueza izango nitza-ke, zuri eskeñico ez banizuke izkribu moldacaitz au, barka itzatzu, bada, arkitzen dituzun utseguiteak, eta arzazu, nere zугanako naitasun eta errespetoaren agirian.

Nai dizu zorion asko zure serbitzari eta azqueneco apaiz

Egilleak

I.

OLEARSO EDO JAIZKIBEL.

Santuen bicitza eta Ama Birgiñaren agerpenac izkribatzen dituztenen usuarioa

da, azaldutzea, lenengo, gauza oek gertatu ziran lekuak edo bazterrak, eta onetan ez dute eguiten beste gauzarik, baik jarraitu San Gregorioren konsejuai. Ara Santuaren itzak:

Usus prophetix locutionis est, ut prius personam, tempus locumque describat....

(1. Greg. super Eceh. L 1.) Gauza egoikia izango litzake, bada, nik ere, santu onen esanai jarraitzea, baña, ezin litekean gauza da au, batetik, Ama Guadalupe-koaren agerpena, noiz, nori eta nolatan gertatu zan, ziertoro inork ez dakialako, eta bestetik, eginkizun miragarri onen berriak, guganaño aoz ao, edo gurasoetatik umeetara etorri direlako, eta onela datozen berriak, zerbait konponketa izan oi dute, egiari gezurra eransiaz.

Asi nadin alabaña zerbait esaten.

Jaizkibel izen datzen da, Ondarrabi-ko ipar-aldera dagoan mendia. Asiera du mendi onek, Pasaiako Arandoko aitzean, eta bukaera Igerko mungan. Da chit aberatsa bere arrobietan, eta orain, eremu, eta arbol edo zuaitz gabe badago ere,

oraindik eunki onen asieran, juañ zite-
kean Ondarrabitik Pasayaraño, arteak
egiten zuten itzalpean; orain, zori gaztioan
gertatzen zayo Euskal-erriko baso gue-
yenai bezela; zur zarrak aizkoraz jo, eta
landarerik ipiñi ez. Anchiñako dembore-
tan chit zan baso ichia mendi onetan, eta
bertan arquitzen ziran basurde, basaulz,
otso eta beste pisti mola asko, aimbeste-
raño, nun, oek eiztalzera etortzen ziran
Naparroako Erregeak. Etorrera oetako
batean, gertatu zan, Sancho-abarka-k eza-
gutzea, menditar nescacha gazte eta oso
polita, eta ordu-tanik Justizko Echejau-
nak dute Errege-odola euren zañetan,
edozenek, bertako irakasde edo paper
zarretan ekusi dezakean bezela.

Mendi onen bukaeran dago Igergo gaz-
telua, Españiako Erregue Felipe bigarre-
nak **ERRIA EZKUDATZEKO EGUIÑA**, eta
mendi beraren erdian dago berriz Guada-
lupe-ko Elizachoa.

Lenagoko demboretan izendatzen zan
mendi au Olearso; eta artu zuen izen au,
bere alboan izandu zan uritik, Ptolomeo
eta Pomponio Melak diotenez.

II.

NOIZ AGERTU ZAN BIRGIÑA GUADALUPE-KOA.

Jaungoikoak guizonai oi ez bezelako agerpenak egin izan dizkie, oen premi eta estutasunak aundienak izan diranean. Edozeiñ agerpen zerutitakok badakar berarekiñ premiren bat, eta esan dedana egia dala edozeñek ekusi dezake, irakortzen baditu, ez bakarrik lege zar eta berriko liburuak, baita ere Eliza ama Santa ren kondaira.

Begira beza bestela, noiz, nolatan eta zergatik izan ziran, gure Españiako Erresuma onetan, Birgiña Pillarekoaren agerpena, Santiagoren agerpena, Birgiña Guadalupe-koaren agerpena Extremaduran, eta beste asko onelako; eta icusiko du, gertaera miragarri oetan, premi esturenbat, zeruko laguntasunik gabe ezin erremediatu ditekeena.

¿Zergatik agertu zitzayon Rodrigo Balzategi-koari Aranzazuko Birgiña Aloñako mendi sakonean 1472-garren urtean? Zergatik Euskaldunak, berrogeita hamar urte artan ari ziran alkarrekin guda eriozkoan oñezkoen alde eta ganboinoen kontra. Gizon santuak, jakintsuak eta Errege alizan aundikoak ere, egin zuten alegiñik asko, guda galgarri ura bukatu zedin, baña, alperrik izan ziran oen egiñalak; azkenean Jesusen Amaren imagiña batek, aranza batetik egin bear izan zituan pakeak.

Orain; Ama Birgiña Aranzazukoaren agerpena gertatu bazan, euskaldunak euren artean zeuzkaten aserre, guda eta gorrotoen bukaerako, euskaldunak berrogei ta hamar urtez iñuri zituzten negarren pozkarriztat, oen premi estutasun eta neke guziena erremediotzat. ¿Zergatik ezdegu sinistu bear, guk ere, Ama Guadalupekoaren agerpena gertatu zala Ondarrabia eskudatzeko, Pranzasakin izan oi zituan gudetan, edo beste motiboren batelatic?

Jakin bear da onetarako, orain, Uri leyal eta noble au, ezereztua eta umildua badago ere, anchinako demboretan izandu dala, Españiaren lenengo soldadu portitza, asko sufritu duena, gure erresuma maitagarri au dagokion oñean ekusteagatik; galdetu bezaye bestela bere murru desegin eta urratuai, eta oec eranzungo dute izkera mutuan.

Esan dezaket inzkribu onetan, iñork ukatzeko beldurrik gabe, Ondarrabiko Ama Guadalupekoaren agerpena gertatu zala, edo Aranzazukoa baño lenago, edo bedeintzat ordutik laster.

Baditut zembait arrazoy aitormen au egiteko.

Aomen aundiko on Sebastian Elkano-k Biktoria zeritzan ontzian egin zuan testamentu edo atzenaya, Uztaillaren ogeita seiean 1526-garren urtean eta laga zizkion Ama Birgiña Guadalupekoari urrezko sei dukat. Emendie dakusku, bada, gure Birgiñaren jayera zabaldua zegoa-la dembora artan, euskalduaen artean bedeintzat, eta oitura zala atzenaietan

zerbaitekin oroitzea; eta konturatu bedi irakorlea, gure egunetan bezin erraz, ez zala, zerutitako gauzen edo eginkizunen berririk zabaltzen: esan nai det, Guadalupe-ko Birgiñaren jayera zabalduko zala, eginkizun miragarrien bidez, eta onetarako bear zirela, gaur bear dan baño dembora gueyago, bada gaur, baporearen eta ELECTRICIDAD deitzen dioten orren bitartez, mundu zabalean gertatzen dana, egun batetik bestera jakiten degu. Gañera, sinistu bear degu ere, On Sebastian Elkanok artuko ziola, zion jayera Guadalupe-ko Amari, ez ichasoan, nun igaro zuan bizitzarik geyena, baizik bere gaztezarroan, aurtasunean, duda gabe bere aurrekoetatik; ekuszazute bada, arrazoy oek indarrik duten edo ez, bada Aranzazuko Birgiña agertu zanetik, Elkanok ill zaneraño, geienaz ere berrogeita amabiren bat urte igaro ziran. Beste atzenai edo testamentu bat ere arkitzen da uriko Elizaren zuzeleku edo archiboan, nun, Maria Ochokoak lagatzen diozkan Birgiña Guadalupekoari «BI TARJA ETA

ERDI» edo bi ezkutu ta erdi; Abuztuaren amabian 1528-garren urtean.

Ez det arkitu izkribu zarragorik, Birgiña Guadalupe-koaren agerpenaren ganean, uste badet ere, goiz edo berandu, zerbait agertuko dala, Bayonako Eliz-nagusiko zuzelecuan, bada dembora artan Ondarrabiko Eliza zegoan Bayonako Apezpikuaren mendean.

Asko dira ordea bi irakasde edo atzenai oriek, edozeñek ezagutu dezan, Jazkibel-go mendian onrratzen degun imagiña agertu zala guchienez (lenago ez bada) amabostgarren eunkiaren azkenean edo amaseigarrenaren asieran.¹

III.

NORI ETA NOLATAN AGERTU ZAN AMA
BIRGIÑA GUADALUPE-KOA.

Aoz ao guganaño etorri dan bezela inz-

1 Ziazalde au inzkribatu ondorean arkitu det uriko zuzelekuan atzenai edo testamentu bat, nun, bertako Benefiziadu, on Migel Beaumot zeritzanak, 1502-garren urtean, lagatzeu dion Ama Guadalupekoari erregalo bat, zion jayera edo debozioagatik.

kribatuko det Birgiña Guadalupe-koaren agerpena.

Bi arzai gazte zebiltzan Jaizkibel-go mendian euren ardiai kontu artzen eta ara nun, biak batean ekusten duten oi ez bezelako argi eder bat, orain Elizachoa dagoan lekuan: ¿Zer ote degu argi ori?; esan zion batak besteari. Oso arriturik eta alkar alaituaz, igo ziran meadi gañerāño, eta pensatu besterik ez dago, nola geldituko ziran, ekustean, Maria Santisimaren imagiña bat, bere semechoa besoetan zuala eta eguzkia baliz bezela distiatuaz.

Bereala konturatu ziran zer izan zitekean, ezagutu zuten zeruko Erregiñak, nolanaiere, biraldu zuala bere antz edo imagiña leku artara, bertan onratua eta beneratua izan nai zualako, eta izan zedin dembora guztietan, baztar ayetako kristauen laguntzallea. Belaunikatu ziran bada, errespetorik aundienarekin, erreza-tu zioten gogora etorri zitzaizquien otoitzak, eta artzai aietako bat bertan gelditurik, jachi zan bestea amilka, zoroa zirur-

riela, erriko Apez-aita eta Alkateari ikusi zutenaren berria ematera.

Laster banatu zan Ondarrabian gertae-ra au; eta baiezean edo ez sinistu nayan egon gabe, a-si zan erriguztia mendia go-ra, eta zorioneko kristau on ayek, gelditu ziran pozturik eta atsegiñez beteric zeru-titako mesede arrenгатik eta zeren Jaun-goikoak biraidu zien errukitsuki, ezkudat-zallerik onena. Bertatik asi ziran lanean eta laster jaso zuten Elizacho bat, imagi-ña arrentzat, geroago ohea agiteko as-moan.

¿Eta zergatik ezarri zioten «Guadalupe-ko Birgiña» edo erbesteko izen ez egoki-au? Nola nai ere, lenengotik ezitzayon-orrela deituko, batzuek menturaz, modu batera eta besteak bestera.

Gañera; denbora ayetan, Extremadura-ko Ama Birgiña Guadalupekoak egiten zituan mirariak zabalduak zeuden Espa-ñaiko baztar guzietan, eta au ekustera juaten ziran kristau-talde aundiak, gaurko egunean Lourdesa dijoazen bezela; badi-

teke bada, ezarri zioiteia izen au, Estremadurakoaren oroimenerako.

Megikon dago beste bat, Ama Birgiña Guadalupekoa deitzen zayona, 1531-garren urlean agertua, (gurea baño azkoz geroago) bada, nola orduan Megiko zegoan Españatarren mendean, ezarri zioten izen au Estremadura-koaren oroimenean. Gaur bertan Katalunian egin dute Eliz-galant eta ederra Birgiña Santisimaren onrran, eta eman diote izena; «Ama Birgiña Lourdes-Katalunia-koa.»

Ara, bada, nere ustean, arkiturik «Guadalupe» itz erbesteko onen aztarrena.

Itz onek ez dauka zer ekusi ez gaztelauarekin, ez euskerarekin, da Arabeena, zeña GUAD-AL-UPE izkribatzen dan, eta esan nai du, otsoaren erreka edo ibaya; GUAD-AL-AJARA arrizko erreka, eta GUAD-AL-KIBIR erreka aundia, aditzera ematen duten bezela.



IV.

BIRGIÑA GUADALUPE-KOAREN ELIZACHOA
ZENBAT ALDIZ EKIDATUA ETA SUTUA
IZAN DAN.

Guadalupe-ko Elizachoa, orain ikusten dan bezela (dorre gabe) ekidatua edo egiña izan zan 1570-garren urtean Martin Saenz Zuloagakoa ontzentari edo Mayordomo zala, orduraño egoten zan imagiña orain sankristia dagoan lekuan, kampo aldera luzeago bazan ere. Kasilda Garrokoa da Guadalupeko seroretzat paperetan lenengo arkitzen dana, zeñak laga ziozkan bost dukat Ama Birgiñari.

On Pedro Juan Roché Iruñeko Apezpikuaren baimenarekin, lenengo aldiz bedeinkatua izan zan Elizacho au 1581-garren urtean. Mendi aldera daukan pareta ezetu ez dedin edo Eliza legor gordetzeko egin zan 1584-garren urtean. Serora

echea eta Elizachoa itsatsirik, orain dau-
den bezela, ipiñi ziran 1587-garrenean,
ala bateko nola besteko zur guztiak eka-
rri ziran erriak mendi berean zeuzkan ba-
soetatik.

Ascenzio bezperan igotzen ziran Gua-
dalupera Kabildoa, Bilguma, nekazari
eta mariñelak, Santuen letaiñak kanta-
tuaz, eta pestarik aundiena egiten zan
Marchoaren ogeita bostean; baña, 1638-
garren urtean, trukatu zan pesta au Ago-
rraren zortzira, geroago esango dedana-
galik.

Guadalupeko Eliza bein baño gueya-
gotan desegiña eta sutua izandu da. Le-
nengo aldiz 1638-garren urtean Mr. de
la Forsa. Kalbinoren setako general edo
Francesen agintariak, oso deseguiñik la-
ga-zuan eta urrengo urtean tellatua ezarri
bazioten ere, ez zan bear bezela kompon-
du 1691-garren urteraño.

Urriaren ogeita seian 1772-garren ur-
tean sutu ziran Elizachoa eta serora-echea
nolatan jakin gabe, eta erre ziran zilla-
rezko alaja asko, kristau onak Maria

Santisimari erregalo egiñak.

Azkeneko aldiz Azaroaren amaikan 1874-garren urtean sutu eta erre zan serora-echea eta zembaten naiez sutu eta erreko zuten ere Eliza; baña guizon biotz-berako bati eskerrak, ez zituzten kumplitu euren asmo deabruzkoak.

Guda zibilla bukatu bezin laster, gure Apez-aita On Joakin Olo-koak eraso zion konpontzeari eta berak jakingo du, zembat neke egin eta zembat diru atera duan, gaur ekusten degun bezela jartzeko.

V.

ZENBAT ALDIZ JACHIA IZAN DAN AMA BIR-
GIÑA GUADALUPE-KOAREN IMAGIÑA BENE-
RAGARRIA ONDARRABIKO ELIZARÁ.

Uzta-illaren lenengo egunean 1638-garren urtean, ekusirik Mari Juan Mugarrieta-koak, Prancestalde aundiak, Bidasoako erreka igarotzen ari zirela Irun-aranzun aldetik, eta nola otsa banatua zegoan

Ondarrabia esitzera zetozela, aimbeste maitatzen zuan Birgiñaren imagiña desonrratuko zutelako beldurrarekin, aldaretik jachi, mandira batean bildu eta besoetan arturik ekarri zuan errira, eta sarrerako portalean utzikidatu zien, orduko Apez-aita On Luis Abadiari eta Alkate Antonio Anziondo-koari, eta errespeto aundian eraman zuten Elizara eta jarri zuten Sakramentu Santuaren alde eskubian.

Bigarren aldian jachi zuten imagiña beneragarri au 1719-garren urtean, Pranziako martizti batek eraso, zionean.

Baita ere egon zan 1774-garrenean Elizachoa erre zalako. Irugarren egoera onetan egin zitzayon bederatzi-urten bat otsandiro, jarririk imagiña aldare nagusian, zillarezko tronu edo eserlecu batean, kantatuaz mesa nagusi eta bezperak, oiez-bezelako gendearen jayerarekin, eta bukatuaz karrikaz-karrikako prozesio ekusgarriarekin.

Laugarren aldiz jechi zuten 1855-garren urtean izan zan kolera edo izurrian,


Agorraren bostean, Iruñeko Apezpikua-
ren baimenarekin. Egun onetan erri guz-
tia igo zan Guadalupera, bada alako
konpianza edo ustea zeukaten Ondarrabi-
tarrak, euren Ama Mariak irichiko ziela
bere Seme Jesusen-gandik, kolera, peste
edo izurri negargarri arren bukaera.

Agorraren seian 1868-garren urtean
jachi zan bostgarren aldiz Guadalupeko
Amaren imagiña, orain daukan dorre
ori egiten asi zirelako, eta urte barruan
lan guztiak bukatu rik, itzuli zuten urren-
go urteko Agorraren zortzian.

Azkeneko aldiz jechia izandu da Abuz-
tuaren ogeita amaikan 1873-garren ur-
tean, bada probintzi onetan izandu dan
guda galgarria, orduan asitzen zan go-
gorkiro, eta uste izan zan onena izango
zala errira jachitzia, iñork bidebagekeri-
ren bat egin baño lenago. Elizan egon
zan, bada, guda bukatu arte, eta Gua-
dalupen egon zirenak egin zituzten kal-
teak erremediatu zirenean, Urriaren ama-
bostean 1876-garren urtean, igo zuten
otsandiro eta oi ez bezelako pestak egiñaz.

VI.

ONDARRABI-KO ESITZE OROIMENGARRIA
1638-GARREN URTEAN.

zta ozta zabaldu zan Uzta-illaren lenengo eguna 1678-garren urtean, nun, asi ziran gende armatuz betetzen, Pausoko Tellatu gaiña eta Endayako mendiak.

Bazekiten Ondarrabitarrak Pranzesen prestamenak, eta erria esitzera zetozela, PRINCIPE DE CONDE-REN mendean; kontuan zegoen Maria Juan Mugarrieta-koa ere, eta leenez neurriak arturik, Pranzesen atzaparretatik imagiña santa libratzeco; aditu zituanean, bada, atabal eta sutumpen otsak, zaldien irrintziak eta gudarien ojuak, aldarera igo, eta errespatorik aundienarekin imagiña artu, bere eche barruko bizitza eta trasteai kasorik egin gabe, munduko gauzetan pensatu gabe, jechi zan errira, berak maitalzen zuan gauzarik baliotsuena besoetan zuala.

Oñetarako gaztigatu zuan zer zijoan egi-
tera, eta andra on au portalera zaneko,
an zeuden Kabildoa, Bilguma, zaldun
eta guiza nobleak, erribarruko beste
gende askorekin. Imagiña santa ikusi zu-
tenean pozez eta atseguñez beterik era-
man zuten Elizara, emen belaunikatu
ziran guztiak, eta eskeñi zioten Jesusen
Amari, baldin laguntzen bazien erria
esitzera zeloztenen garaitzan, eguingo
ziotela otsaundiko pesta, bezperan barur-
luaz.

Adituak izan ziran Ondarrabitarren
erreguak eta eskaerak. Irurogei ta bede-
ratzi egunez peleatu ziran portizki, ogei
ta amasei milla oñezko, lau milla zaldizco,
asko sutumpa beldurgarri eta ontzidi aun-
diaren kontra, erri barruan zazpireun
soldadu besterik ez bazegoan ere, baño
lagundu zien bertako guizon errutsuak
eta emakume pizkorrak. Murruak dese-
gin, porrokatu, eta egun batez zortzi al-
diz asaldatu bazuten ere, ez zieten barre-
na sartzen laga Ondarrabitar leyalak.
Murruen oñetan iliotzik geratu ziran Pran-

ziako zaldun eta agintari aomen aundie-nekoak. Azkenik; Eliza Ama Santae, Maria Santisimaren jayotza zecelebratzen duan egunaren bezperan agertu zan Jaizkibelgo mendian Españatar martiztia, oñezkoak Alfonso Enrikez Gaztelako Almirantearen mendean, eta zaldizkoak Belezko, Markes eta Naparroako Errege-ordekoak agintzen zituala.

Eraso zien gure gudariak Pranzasai, eta illunabarrean bukatu zan jazarra ura, lagatuaz etsayak, ez bacarrrik euren illak, baita ere arrapatu ziezten, bosteun agintari eta soldadu, berrogeita amar bändera, sutunpa geyenak, interesa eta bazka asko. Bidasoako ibayan ito ziran bi milla eta geyago, bada ainbesterañokoa zan oen larris, nun, eriosuarrean, potzu onetara bota zituzten euren buruak, eta iges egin zutenak, ez zuten gogorik eraman geyago Ondarrabi leyal, noble eta errutsua esitzeko.

Ondo ezagutu zuten kanpotik eta barrerrik peleatu ziran Españatarrak, Maria Santisima Guadalupe-koari zor ziotela

garaipen miragarri ura; juañ zirañ bada guziak Elizara, eta naiz gaubaz izan, kantatu zuten San Ambrosiok eta San Agustiñek konpondutako *Te Deum Laudamus*.....zerutilakoa.

»Monsieur de la Jorsa-k eduki zuan »kuarteltzat Guadalupeko Elizachoa, emen »arkitzen zirañ satuen imagiñak erabilli »zituñ lotsabagekiro, ostikopean zanpa- »tuaz, erege Kalbinista fede gabeko des- »leyalaren gisañ: baita ere, agindu zuan, »bere setako apaiz batek predikua egin »zezala, esanañ, kontentu illko zala pre- »diku ura aditu zualako, baña andik egun »guchiren buruañ, uste zuan Ondarrabi- »ko erria artu gabe, iges egin bear izan »zuan estura larriañ; ez predikua entzun- »dako pozkidaz, eta ez Ondarrabia utzi- »tako atsekabez, baitzik ill nai etzualako »lenago baiez esan bazuañ ere.»

Predikua egin zuan apaiz eregea arra- patu zuten Ondarrabitarrak beste solda- du batzuekin batera, baña ez zuten eza- gutu nor zañ, eta nola traste gaisto ark bazekiañ ezagutzen bazuten kiskalerazi-

ko zutela, eta Guadalupen geyago predikatzeke gogoak kenduko ziozkatela, «bere burua ill edo bici urari erasorik igarozan Endayara....»

Ondarrabiak kunplitu zuan bere esketia, urrengo egunean egin zan pesta aundibat, eta adierazi zion zeruko Erregiñari, Bera berezitzen zuala erriko Bitartecotzat.

Ordutanik: urteoro egiten dira pestak eginkizun onen oroimengarri, igoaz, Maria Santisimaren jayotzaren egunean, Kabildoa eta Bilguma Guadalupera, meza nagusi eta predikua entzutera, eta bira monean egiten da beeko Elizan, punzionegarrezkoa,¹ esitze artan ill ziran animen sufragio edo laguntzarako.

1 . funebre

VII.

MARIA SANTA GUADALUPE-KOAREN BITAR-
TEZ GERTATU IZAN DIRAN EGINKIZUN
MIRAGARRIAK.

Begien aurrean dauzkat Birgiña Guadalupekoaren onrran, gaztelanizko itz neurtuetan, Kadiz-en 1767-garren urlean moldizkidatu ziran GOZOAK, eta itz neurtu oyetan kantatzen dira, gure zeruko ama errukitsuak egindako sei mirari; baña, bat banakà azaltzera, luce-egi eguingo litzake izkribu au, ez ditut, bada, argitaratuko, ondøena probaturik daudenak baizik.

Lenago aipatu degun Mr. de la Forsak, erege Kalbinista prestuez ark, laga zuan Guadalupeko Elizachoa chit ondatua, tellaturik gabe; eta eskerrak Jainkoari lau paretak chutik guelditu zirela; motibo onengatik, ezin eraman izan zuten Maria-ren imagiña bere lekura, alabaña, berta-

ko gendeak tellatua ezarri zion urte barruan, neguko euri jasakin lurra jo ez zezan. Birgiña Guadalupekoaren imagiña egoten zan erriko Elizan, aldare nagusiaren eskubian, gau ta egun argi asko aurrean zituala. Emen zegoan, bada, Marchoaren ogeita batean 1639-garren urtean, igande egun batean. Arratsalde artan, beste kristau on askoren artean, egon zan Mariaren imagiña bisitatzen, Guadalupe-ko serora Maria Juana Mugarrieta-koa, zeñak bere. Ama gozoari zion jayeragatik esan zion Elizako sankristau Martin Sopetanari, ez zezala utzi iñozere irazeki gabe, aurrean zeukan zillarrezko argi ontzia, eranzunaz Martiñek, merez zuan kontuarekin begiratzen ziola, eta ez zitzayola argirik paltatzen ez egunaz eta ez gabaz. Egin zituan bada bere erregu edo otoitzak andra on Maria Juanak eta irten zan Elizatik. Sankristauak ere, illundu zuanean, jo zuan kedaezkillak, piztu edo konpondu zituan Sakramentu eta Birgiñaren argi-ontziak, eta ekusirik, ea iñor Elizan geratzen zan

(gaurko egunean eguiten dan bezela) atearak ichi eta juañ zan bere echerà.

Keda jo bezin laster, ichitzen ziran portaleak ere, alako moduan eze, ezin sartu eta irten zitekean erritik ate eta murrugañean zebiltzan zentinelak edo gaurguardak oartu gabe.

Ara bada zer gertatu zan.

Biramonean sankristauak Eleiza ireki, AVE MARI ezkillak jo eta argiak piztutzera joan zanean, ekusi zuan Ama Guadalupekoaren imagiña palta zala; oso arriturik uste ez zuan gertaera onekin joan zan lasterka Apez-aitari adieraztea, bereala errian banatu zan gauza onen berria, eta imagiña bedeinkatuak zer egin ote zuan ezin konturaturik zeudela, jakindu zan, Guadalupen, lenagoko lekuan zegoala bere bi koro eta eskuetako lora sortakin.

Bereala, On Juan Jutziz eta Burgoak, Lizenziadua eta erriko Alkate zanak, ireki zuan billekindea,¹ gauza au nolatan gertatu zan jakiteko; kastigatzeko egi-

1 Información

Ileak, baldin gaiztakeriz egin bazan, eta argitaratzeko baldin Maria Santak nai izan bazuan egin mirariz; deitu zituan bere aurrera ogeita bi dakirats, eta guziak juramentuaren azpian azaldu zuten zekitena, eta ez zan bat bakarra gelditu, Ondarrabian sinistu gabe, mirariz gertatu zala eginkizun au, eta aditzera eman nai zuala Birgiña Guadalupekoak, Jaizkibelgo Elizachoa zala bere eserlecutzat berezi zuana.²

Beste mirari bat gertatu zan 1760-garren urtean. Bazter guziak legortu eta nekazari gañoa zegoan bere urteko neke eta izerdi guzien saria galtzeko perillean.

Erriko Elizan egin ziran erregu guzia-kin ez zan euririk irichi; kabildoak eta Bilgumak erabaki zuten, bada, igo bearzutela prozesioan Guadalupera; adierazi zan errian, eta urrengo egunean, Ondarrabitarrak mendira igo bezin laster, era-

² Izkribatu dedana, ekusiko du nai duanak, zearo, argi eta garbi, Ondarrabiko zuzelekuan.

«Acuerdos de la M. N. M. L. villa de Fuenterrabia, años 1635, 1638, 39 y 40 izendatzen dan liburuan.»

so zion, alako euri jasari, non, egon bear-
izan zuten nai ta nai ez Elizachoan eta
serora-echean arratsaldeko ordubiak arte.

Eskerrak eman ondorean Ama Birgi-
ñari, zeren aiñ euri gozo eta bearsua egin
zien, biurtu ziran errira.

Milla zortzireun eta berrogeita amabost-
garren urtean, gure erresuman izan zan
izurre edo kolera, Ondarrabitarrak jarri
zuten konpianza guzia euren Bitarteko
dan Jesus-en Amagan. Jechi zuten errira.
Iruñeko Apezpikuaren baimenarekin. Illu-
nabarra zan portaletara urbildu zanean.
imagiña maitatua, ekusgarria zan ere
prozesioaren sarrera karrika nagusian, ze-
ña zegoan oso apaindua eta arguitzen
zuan, bakoitzak eskuari zeraman zutar-
gi edo zirioak; makiña bat negar malko
iñuri zala gau artan, dio, berri oek ema-
ten dizkidanak, baña, ez ziran alperrik
izan negar oek eta Ondarrabitarren es-
kaerak euren Ama gozoari, bada, laster
alde egin zuan aimbeste kalte egin zuan
izurreak.

Oraindik ezta urte asko, On Joakin

Ollo-koa, Uri onetako Apez-aita benerra-
 garria, Guadalupeko Elizachora meza
 ematera zijoala, arkitu zuan emakume
 bat, (Pranzesa) Chomiñeneko maldan,
 KRISTOREN PASOA deritzayon lekuan, eta
 itzak itz bidea emanaz, esan zion, Jauna:
 nik zor diot mesede gogoangarri bat Bir-
 giña Guadalupekoari. Urte bete izango da
 geyenez ere, netorren, nere seme maite
 eta elbarriarekin, sendagille aomen aun-
 dikoakin alegin asko egin ondorean, ea
 zerutik irichitzen ote nuan, lurreko aliza-
 nakin irichi ez nuana. Jarri nuan bada
 nere seme gañoa astochoko batean, eta mal-
 da onetatik giñoazela, esan ziran: ama;
 jechi nazazu astotik, bada iruritzen zait
 nere gaitzak ezkutatu direla, nere iztar
 eta zankoetan sentitzen det oi ez bezelako
 indarra; esan ta egin, jachi nuan astotik,
 eta begira beza nolakoa izango zan nere
 poz eta atsegiña, ekusi nuanean oñez,
 ainbeste denboran pauso bat ezin eman
 zuan nere biotzeko laztana. Nik ez dakit
 une artan nolako otoitzak egin niozkan
 nere zeruetako Ama gozoari, baña min-

gañak baña obeto adierazi zion nere begietatik irten ziran negar malko esker onekoak.

Maria Santisima Guadalupekoagandik, zerutitako mesederen bat irichi duan batek, oraindik dembora asko ez dala, ezarri erazi ditu aldare nagusiaren ezker-ekubi marmol zurizko bi arri, eta ara zer irakorten dan.

RECUERDO

de agradecimiento

A Maria

J. A. de L. 1877.

SOUVENIR

de Reconnaissance

A Marie

J. A. de L. 1877.

Beste zenbat mirari egin ditu ere, Uri onetako Bitarteko dan Zeruetako Erregiñak, bai ichasoan, mariñel gañoak eriotzatik libratuaz, bai esklavoak edo mairuen menpeko kristau tristeai euren kateak ausiaz eta presondegietatik atereaz. Auguztia erozeñek irakorri dezake, Guada-

lupen Mariaren onrran egiten dan bederatz-ururenko liburuan eta balez ere
GOZOETAN.

VIII.

AZKENEKO AMABOST URTE OETAN GUADALUPEN EGIN DIRAN LANAK, PUNZIO, ERROMERI ETA BESTE ZENBAT GAUZA IRAKORLEAK EKUSIKO DITUANAK.

Guadalupe-ko Ama Birgiñaren ziazalde edo kondairaren bukaeran ezin laga dezaket zerbait esan gabe, Elizachoan eta bere inguruan egin diran lanen gañean.

Milla zortzireun eta irurogeita zortzigarren urtean, etzeukan Elizacho orrek dorrerik, tellatuaren gañean zegoan ezkill chiki batekin biltzen zan gendea meztara eta beste an egiten ziran puntzioetara. Gogoratu zitzayon ordea, gure Apezaita On Joakin Olo-koari chit nabarmen zegoala «Erregiñaren burua koro gabe»; eta eziñal aundiak begien aurrean jartzen

baziran ere, artu zuan asmo sendoa arri landuzko dorre galant bat egin bear zuala. Adierazi zion bere ustea, bere adiskide dan On Jose Maria Iarza Ziadiztarien edo Ingenieroen Koronelari, eta Jaun onek, ez bakarrik atera zion planoa, baita ere eskeñi zion lagunduko ziela zezakean guzian.

Emanik baimena Uriko Bilgumak plano arri, asi ziran lanak Otsaillean 1868-garren urtean, fidantzia jarririk Guadalupeko Amari jayera ziotenetan. Dio On Joakin Ollokoak, ez zitzayola dirurik palatu langilleai araukoro¹ pagatzeko; asko da jakitea dorrea bukatu zala urte bereko Agor-illean. Gastatu ziran 66,000 erreal, bilduaz batean eta bestean 50,000 bezela. Orretarako, kontuan artu bear da, zurguzia emari zutela limosnaz, eta baita ere langille askok, eta nekazari ez gutxit, euren idi eta beyakin lan egin zuzutela egun askoz jornal edo sari gabe; alako moduz eze. bata bestea jotzen ba-

1 Puntualmente.

da, esan dezakegu, Guadalupeko dorrea kosta zala 120,000 erreal guchienez.

Esandet lenago, azkeneko gure arteko guda uegargarri eta kaltetsu ori irau n zuan artean, imagiña santa egon zala Uriko Elizan, baña bukatu zanean, igo zutela berriz ere bere lekura Urriaren amabostean.

Egun onetan Birgiña Guadalupekoari laguntzen igo zan gende taldea arrigarrria zan, ez bakarrik Ondarrabi, Irun eta beste Españaiko errietatik, baita ere Pranziakoetatik.

Bost millatik igarotzen ziran Guadalupe inguratu zirenak. Elizachoa ez zan gai gende ura guztia kabitzeko. Aurrez gogoratu zitzayon Apez-Aita Jaunari zer gertatuko zan, eta baimena eskaturik zeukan Apezpiku bereziari, meza kanpoan emaleko.

¡Egun gogoangarria izango da egun ura Ondarrabiko Uri leyalarentzat!

Prestatu zan aldarea Elizachoaren ezkerrean dagoan mendi tontorrean.

Zeru-goya zegoan urdiñ urdiña, lañocho bat gabe.

Esan zitekean, Aingeruak ere poztutzen zirela pesta artan.

Asi zan meza.

Apaiz beneragarriak jaso zuanean mendia-
diaren gañean Jesus-en Gorputz Santua
nor egon zitekean gogoratu gabe Kalba-
rioan, gure amorez, gurutzean josirik,
jaso zuten une negargarri ura? Bost milla
kristauk ekusi zuten Osti Santua, Aita
Betikoari, Apaizaren ezkuak zerurontz
biurtuak eskeintzen. ¡O! ekusgarriak zi-
ran bost milla buru ayek makurturik eta
askoren begietatik negar malkoak lurrera
iñuriaz. Ez zan aditzen chintik, ez zan
aditzen gendearen asnasarik, ez aizearen
mugidarik. Gertuan zegoan ichasoa ere,
azkenik, bere oi bezelako orrorik egin
gabe, eta bere gaiñ urdiñera arrai talde
aundiak agertuaz, adierazi zuan, poztu-
tzen eta dembora berean umiltzen zala
bere Egillearen aurrean....

San Pedro an egon bazan, esango zion
bigarren aldian Jesusi, Taborko mendian
lenengo aldiz esan ziona: *Domine, bonum
est nos hic esse.* (Matth 17, 4.) Jauna,

zein atsegingarri dan gu emen bizitzea;... eta egiaz; esan zitekean isiltasun ura, edo zeruko espirituena zala, edo Guadalupeko mendi-gaña zeru biurtu zala.

Mendian eman zan mezaren oroimenak iraun zezan, sortu zitzayon gogora ainbeste aldiz izendatu edo aipatu dedan On Joakin Olo-koari, an bertan jaso edo alchatu bear zuala, al bazuan, munduan arkitzen dan arrizko garutzerik aundiena. Esan zion bere gogoa Antonio Berrotaran-go arotz eta artista abillari¹ eta laster onek billatu zuan ARRIESTUETA deritzayon Jaizkibel-mendiko arrobian nai zuan bezelako arri-galant bat, zeñak zeuzkan luze-eran ogeita bost oñ ta erdi eta bere pişua zan guchienez berreun kintalekoa.

Eraman bear zan zegoan lekutik iru milla kanaz urrutiagora eta arri puska ura andik ateratzeko bildu ziran eun da

1 Ain da abilla arotz, zurgin edo artista au, non; bein ekustearekin beste gabe, ikasi du ezkillak egiten, eta onek egiñak dira Uriko Elizako aundiena eta bi chikiak, Guadalupeko biak, Irungo bat eta Ernani-ko beste bat. Da gizon bat gauza askotarako gai dana, da «ezkutaturik dagoan arri baliosoa bezela.»

berrogei ta amar gizon eta ogei ta bost idi pare. Lenengo egunean erabilli zuten milla kanan bezela, eta irugarrenean ekarri zuten, jarri bear zan lekuraño.

Andic amar egunera atera ziran beste bi arri, bata amabost oñeko gurutzia ren besoak egiteko, eta bestea zazpi ta erdikoa gañerako.

Asko da jakitea, gurutze onek dauzka la berrogei ta bi oñ ta erdi peñaren ondolik asi eta bururaño, Peñak dauzka bost malla inguru guzian eta malla oetan egon ditezke jarririk ean ta ogei gizon alkar asko estutu gabe.

Gurutze au ekustean, lan oetan adituak direnak, esan izan dute mirariturik «¡bada norbait alderdi geyago gabe, arripisu ori chuti jarri duana!»

Gurutze onen oñetik, edo bere inguruetatik ekusten dira Españaiko iru probinzí, Gipuzkoa, Bizcaya eta Naparroa, eta Pranziako lau, Basses-pirinees, Landes, Gironde eta Gers.

Gurutze au dago Gipuzkoako lekurik zoragarrienean, emendik ekusten dira san dituan probinziaz gañera, arkaitz,

mendi, baso eta oyanak, agiri dira zelay-
 soro, ibar eta sagasti mardulak, agiri dira
 Uri, Erri eta borda uso churiak dirudite-
 nak arbol tartean, agiri dira burni bide,
 Irun eta Endayaco ESTAZIOAK, agiri di-
 ra Burdeosko munu, Bayonako barra,
 Biarritz-ko erri, Sokoa-ko gaztelu, Onda-
 rrabi eta Endayko portu eta Mr. Abadiren
 jauregi galanta, agiri dira ichaso zabal,
 Bidaso-ibai eta errecacho garbiak, agiri
 da Justiz aomen aundikoa, lotsatua bezela
 chara-tartean, agiri da Guadalupeko Eli-
 zachoa bere dorre alayarekin, agiri da
 gure uri noble, leyal errutsu eta beti pie-
 la bere murru urratuakin, agiri da... ba-
 ña bukatu dezadan zer agiri dan, Aita
 Aranak gurutze onen peñan ešerita ze-
 goala kompondu zituan bi itz neurtu
 ookekin.

» ¡Irun aldeko ibar ederra
 Zoragarria bai dago!
 Agiri dira Oyarzun mendi,
 San Marzial ta geyago;
 Beste aldetik Larrun altuba
 Urruña berriz beerago;

Oyen ondoan Euskaldunentzat
Bost erri maite badago.»

«Begira an bian Endaya
Eta Bidasoako ibaya
Bere gañetik dator su ta gar
Burnibidezko pasaya;
Ondarraitz dago beste aldera
Ta andik goragò da alaya
Euskaldun andi Abadik duen
Jauregi berri galaya.»

Ainbestekoak dira Elizachoan eta bere inguruan egin diran lanak azkeneko urte oetan, nun, gure guraso zarrak piztuko balira, ez luteke ezagutuko Guadalupeko mendia. Ekusiko luteke, bada, Imagiña santa dagoan aldarea poliki urreztatua, ekusko lituzkee onen soñeko eta jantzi baliosoak, ekusko lituzkee juandan urtean, jaiera aundia dion dama batek erregalatatutako errezela edo cortina ederra, elizaren erdian dagoan argi-armiarma berria, ekusiko luteke, elizgaña urdiñez pintatua, bea edo echonpea arlosa zarrak kendurik gaztaña kolez ezarria, atzeko koro

biak, sankristi gañeko ganbarachoa, eta beste milla gauza gure aurrekoak ekusi ezituztenak; esango lukete, bai, eta arrazoyarekin, ez dagoala Gipuzkoa guzian Elizacho bat politagorik, alayagorik, eta gauzak bere neurrian obeto dauzkanik....

Eta nik, gaizki egingo nuke aitortuko ez banu, aurrerapen oek guztiak zor zayola Ondarrabiko Apez-aita On Joakin Olokoari.

Bukatzer a noa esanaz, emengo punziarik aundiena egiten dala Agor-illaren zortzian, eta urtean asko erromets etortzen direla auzo errietatik, eta bataz beste egun bat ez dala igarotzen mezarik eman gabe.

Oek dira nik bildu dituan berriak Ama Birgiña Guadalupe-koaren gañean; zerbait laga badet, izandu da, ziazalde au ez geyago luzatzeagatik.

Irakorlea: «gaizki esanak barkatu» eta gomenda nazazu zure erregu edo otoitzetan, Jesusek, gurutzean josirik zegoala, Amatzat laga zigun zeruko Erregiñari.

ALFONSO M.^a ZABALA-KOA.

Eraizkuna edo Osagarria.

I.

Emen luku da Ondarrbiko Urian 1883-garren urtean izan ziran euskal-pestetan, luma zillarrezko arrestaliarekin saritu ziraten ziazalde edo kondaira; eta nola dedan asmoa liburu bat meldizkidatzeko, deizkiot, on dala, beste notizi edo berri batzuek emen ezartzea osagarritzat bezela.

Uriko Eliz-nagusian arkitzen dira Sانسinene-ko Eche-jaunak erregalatu zituzten bi pintura, Guadalupe-ko Ama Birgiñak egin ziezten mesedeen oroipengarri.

Ekustenda batean ichas-ertza eta ontzi bat ya galduan, eta urbill dagoan kostan su-garren erdian Guadalupe-ko Birgiñaren magiña. Pintura edo KUADRO onen ertz batean dago inzkribaturik gaztelaniz, emen euskarara biurtzera noana.

*Pozuelos-ko kayan, On Fermin Sانسinene-koa Trinitadeko Uartera zijoala,

»onek agintzen zuan ontzia urez bele zan,
 »eta ozta ozta izan zuan dembora bere
 »erriko Bitarteko dan Ama Guadalupe-
 »koari erregu bat egiteko, eta bereala
 »ekusi zuten gar bat ur-baztarrean, eta
 »gar onen erdian Mariaren imagiña edo
 »antza. Urez beterik bazegoan ere ontzia,
 »jo zuten brankaz ondarra, eta zeuden be-
 »zela, burutik oñetaraño bustirik, juan
 »ziran garra zegoan lekuraño, baña be-
 »reala gar ura desegin zan.

»Mirari au gertatu zan 1778-garren
 »urlean.»

Ara bada zergatik pintatu erazi zuan
 On Fermin Sansinene-koak aipatu dedan
 KUADROA edo imagiña.

Emen bertan dago ezarririk letraz, nola,
 »On Antonio Caballero ta Gonzalo Santa-
 »fe-ko Len-apezpikuak utzikidatu zituan
 »larogei eguneko indulgentzi edo barka-
 »zioak, salve bat imagiña onen aurrean
 »errezatzen duanari, zeña dan, (dio Len-
 »apezpiku Jaunak) Ondarrabiko uri no-
 »ble, leyal eta errutsuan, anziñako den-
 »boretan agertu zana, eta mirari asko
 »egin izan dituana.

Bigarrena ere pintatu erazi zuan len esan dedan On Fermin Sansinene-koak. Ara zergatik.

Orinoko ibayan, Guayanako uriko San Gabrielen Gazteluaren ondoan, onek agintzen zuan BALANDRA San José zeritzana, CUMANATIK zetorrena, Gipuzkoako konpañi-errealen interesakin, galdu zan arkaitz-tartean, baña, zeren, On Fermin, Maria Santisimaren seme leyal onek erre-gutu zion Ama Guadalupekoari, ez baka-rrik eman zien denbora lurreratzeke, bai-ta ere aberastasun guziak ateratzeko, eta au egin zuten bezin lazter, urez bete, ki-lla desegin eta ondatu zan.

Mirari au gertatu zan 1778-garren ur-teko Agor-illean.

II.

Mancha-ko Tarazonan, Albazete-ko probinzian, bizi da oraindik dama bertu-tetsu bat, Andra Franziska Serrano Vi-dal-ena deritzana, eta aipatu dedan On Fermin Sansinene-koaren bi-illoba. Igaro

dan urtean, dama noble onek, gure Apez-
 aita Jaunari inzkribatu zion eskut-itz ba-
 lean esaten zion. «Nere amak, bein baño
 »geyagotan esan izan ziran, bazala Eliz-
 »orretan nere aiton On Fermiñek errega-
 »latutako ichas-ontzi bat dena zillarrez-
 »koa, bela, arraun, lema eta beste gañera-
 »ko ontzi baten tresna guziakin; ontziaren
 »erdian zegoala Ama Guadalupekoaren
 »imagiña, eta baita ere, nere AITON biz-
 »korra bere buruko koleto eta antziñako
 »kasakarekin, eta ontzi-ori zinzilik ego-
 »ten zala Guadalupeko Elizachoaren er-
 »dian.»

»Nere amak aditu izan zion bereari,
 »eta onek gure aiton On Fermiñi zergatik
 »egin zuan erregalo ura.

»Gau batean, lo zegoala, agertu zitza-
 »yon Birgiña Guadalupe-koa eta esan
 »zion; Fermin, jaiki zaite, bada ontzia
 »urez betetzen ari zatzu, jaiki zan berea-
 »laše, esnatu zituan mariñelak, asi ziran
 »BONBAZ ura ateralzen, eta ekusi zuten
 »kilararen ondoan ireki zala; konpondu
 »zuten bada, eta onela, (Mariari eske-

»rrak) libratu ziran eriotza seguru bate-
»tik.

Asko urte izan beardu ezkutatu zala, betiko, zillarrezko ontzi au, bada, gaur bizi direnak ez dute ematen onen berririk, eta sinistu liteke, Pranzasak, beste alaja asko átzeman zituztenean, eraman zutela au ere.

III.

Uri onetako umant leyal On Tomás Arsu-koa, KORSARIO errutsuak, izandu zion jayera aundia Guadalupeko Ama Birgiñari, eta 1620-garren urtetik aurrera izan ziran ichas-gudetan, bere etsayak garaitzen zituanean, etzion lagatzen zerbait erregalo egin gabe bere laguntzalle zeruko Erregiñari; onela adirazten zuan bere leyaltasun eta jayera bizia.

Justiz-tarrak, (zeñak duten diotenez euren zañetan Errege-odola) lenengo, eta Arsutarrak gero, izandu dira beti, Ama Virgiña Guadalupe-koaren debotorik aundienak.

Libru onetan azaldu diran mirarien gañean, Eliz-ama-santak ez du oraindik deus erabaki, beragatik; ez dute merezi beste sinismenik, kristau onak ematen diena baizik.

IV.

Beartua arkitzen naiz orain zerbait esatea, aurten Guadalupe-ko Eliz-aurrean egin dan iturriaren gañean, eta onetarako asko det emen ezartzea Otaegi-ko On Claudiok, euskaldun inzkribatzalle bikañetatik bikañenak, «Euskal-erriaren zuzendariari inzkribatuzion eskut-itza, gauza onen berri emanaz: ara zer dion.

» *Guadalupeko iturriaren bendizioa* Ondarrabian Abenduaren 8. ^{an} 1884. ^{an} Euskal-erriaren Zuzendari Jauna.-Nere adiskide maitea: ¡Zer bista ikuskarria arkitzen dan nere begien aurrean egun sentiko istante onetan Guadalupeko dorretik! Choriak kantari daude, zelayak eta arbol orriak intzez bustirik; aizea ere biguñ, itsasoa mugi gabe ta paketsu,

»zerupea urdiñ ta garbi, guchitan gertatu
 »oi dan bezela urte muga onetan; erreka
 »eta iturrichoak mur-murka, eta zeru-
 »argien errege, bere urrezko erreñuak
 »zabaltzen mendi muñotara. Izate denak
 »diruri parretsu zeruetako Erregiñaren
 »sortze garbiaren egunean.

»Asi dira ezkillen mingañak egunaren
 »irteeran Ama Birgiñari diosal egiten:
 »badator gendea mendia gora, lendik
 »berri eman ziran mezak enzutera: artu
 »dute Jauna batzuek; aditu degu Jaungoi-
 »koaren itza guziok On Franzisko Giul-
 »beaut Jaunak egin digun prediku ego-
 »kiaren bidez: eta Ama Santisimaren go-
 »zoak kantatu ondoren, badijoa gendea
 »mendia beera bakoitza bere echera, baz-
 »kal-ondoan berriro igotzeko asmoarekin,
 »ikus dezaten iturriaren bendizioa.

»Ezagun da eguraldi ederra eta lasaia
 »dagoela! Emen dator berriro erri guzia
 »mendia gora: bide chigor guziak arki-
 »tzen dira gendez beteak; bat edo beste
 »zaldiz eta gañerakoak oñez, or datoz iji-
 »ujuka eta kantari; senarrak, eskutik di-

» tuztela aur batzuek eta bizkarrean bes-
 » teak; emazteak kandelakin, eta galai
 » alayak eta nescach lirañak euren meren-
 » dakin. Allegatu da kabilo errespetotsua
 » eta baita ere Ayuntamiento argidotarra;
 » ta piskabat atsegiñ ta gero, ezkillen TT-
 » LIN-TALANAK aditzera eman dute, urbil-
 » du dala eleizkizuna asitzeko muga.

» Kantatu dira ospatsu bezperak; baña;
 » nola kabitu ainbeste gende Elizachoan!
 » lautikan iru kanpoan daude, ala ere oen
 » biotzak arkitzen dira barrenean; zeren
 » burutsik eta errezatzen daude modesti-
 » rik aundienarekin, aundi ta chiki, zar ta
 » gazte, eta aberats bearsu, guziak nasirik,
 » euskal-errian anziñatik bildu oi diran
 » bezela, onelako eginkizunetan.

» Irten dira apaizak eleizatik euren gu-
 » rutzea gora alcharik, Ayuntamientoa du-
 » telarik ondoren, eta alderatu dira ONGUI-
 » ETORRI deritzayon iturri berrira. Kantatu
 » dituzte Aita Aranaren Kopla egokiak, ze-
 » ñai baidizkien paratu musika, On Clau-
 » dio Jauregik, igaz uri onetako euskal-
 » pestetan saritua izandu zan emen jayo-

»tako ume erneak, zein baitago ikasten
 »Madrid-en. Iturri eta bere gañeko arriz-
 »ko Ama Virgiña bedeinkatu, eta *Ave*
 »*maris stela*.... kantatuaz oni diosal
 »egin ondoren, an dijoaz, santuen letai-
 »ñak kantari aintzirara, zeñari baizayo
 »paratu izena GARBITASUNA. Kantatu di-
 »tuzte emen ere A. Aranaren beste koplak
 »batzuek, zeñaren musika baita, On Este-
 »ban Lasa, uri onetako organista Jauna-
 »rena, eta itzuli dira, au ere bedeinkatuta
 »gero Eleizara, non kantatu duten *Te*
 »*Deum*.

»Bukatu da Elizkizuna eta asi dira zi-
 »zirikuak egaatzen, chupinazoak soñu
 »egiten, chistu danboliñak musika jo-
 »tzen, eta nescach mutillak, modu aun
 »diarekin dantzatzen, denbora berean
 »Ama Virgiñari diozkatelarik kantatzen
 »ONGIETORRIAREN koplak, soñuari pun-
 »tuak artuaz. Oeki begira daude batzuek,
 »besteak sagardua eraten; gende mordoz-
 »ka batzuek euren zapi zuriak zabaldu
 »zelayetan, eta umore onean merenda-
 »tzen: eta beste asko On José Ign.º Eche-

»nagusia, uri onetan jayotako seme abi-
 »llak pintatu eta On Jose Joakin Ollo Bi-
 »kario Jaunari erregalatu dion KUADRO
 »bikañari begira, zeñetan arkitzen diran
 »Guadalupe-ko Elizachoa bere inguru
 »politik eta itsas-urdiña, laztanchoak
 »emanaz Pranzi aldeko ondartzari.

»Bedeinkatu duten iturri onek du jayo-
 »tza Guadalupetik 1,100 metrora. Andre
 »Maria-ren kabi santu polit au dago itsas-
 »ertza baña 180 metro gorago, eta beste
 »85 metro altuago ura artu dan tokira.
 »Iturri onek anziñatik zuen izena, JOSE-
 »AUNDIREN iturria, depositoa dago Gua-
 »dalupetik 700 m. bidean, eta 60-bat m.
 »ermita baño altuago; eta kabitzen ditu
 »8,000 litro ur, isurtzen dalarik litro bat
 »bederatzi segundoan. Lan guziak egin
 »dira On José Antonio Berrotaran, emen-
 »go seme argia buru dala. Onek egiña da
 »iturriaren gallurreko arrizko Ama Virgi-
 »ña aiñ egokia; eta arritzeko lana da itu-
 »rritik aintzirara jechitzeko egin duen es-
 »killara, bada, arroka bizi batean malluz
 »atereak arkitzen dira 36 malla.

» Limosnan bildu diran diruakin eta
 » auzolanakiñ egin da iturri polit ori,
 » Aundietakoa izan duda noski auzo gu-
 » zien borondatea lanerako; eta esamiña-
 » tuko balirake egin diran lan guziak,
 » entzun dizkiet gizon adituai, igoko luke-
 » tela 1,500-bat ezkutu-loditaraño: bada,
 » kañu utsak kosta dira 600 ezkutu lodi;
 » aundietarakoak izan dira argin lanak,
 » eta guziez gañera, asko kostatzen da
 » kaletik mendira igotzea, bear diran ga-
 » yak. Emanaitasan aundia izan da erri
 » guzian; ez ditut para nai geyena eman
 » dutenaen izenak, zeren bildur paiz utse-
 » giteko; bakarrik esango det, badakidala
 » izan dala persona arrotz bat 125 ezkutu-
 » lodi eman dituen; baña zorrik aundie-
 » na izango diogu, lan aundi ori, beste as-
 » ko lenago artu izan dituan bezela, bere
 » gaiñ artu zuenari; au da, gure Bikario
 » Jaun egille biziari....

« Itsas-ertzean eguzkia sartutzeko mu-
 » gan ekin diogu guziok mendia beera
 » gure bideari, egun on bat igaro-ondo-

»rean. Sekula ez dira juango nere buru-
»tik bidean aditu ditudan jolasak.

«¿Zer iruditu zaitzu Maitoni, gaur Gua-
»dalupen egite diran pestak? galdetu zion
»AMA-ANDRE batek, neskach zuri-gorri li-
»rain bati.

«Nere dembora chikian guchi ikusi di-
»tudan bezelakoa. Izandu naiz bazter oe-
»tako erromeri askotan, baña ez ditut iku-
»si aimbeste gende bildu dan toki chiki
»batean, aĩn ongi egiten, ala Eliz-lanak
»non ondorengo jostaketak. Askotan adi-
»tu nuen ez dala probintzian beste erri
»bat au beziñ alkarturik, eta egiaz, ala
»izan bear du. Nik uste det jende arrotz-
»askoren gañera, Ondarrabi guzia or zala,
»eta ala ere, ez diot ikusi beguiratze char
»bat egiten iñori ¡Jaungoikoak bedeinka-
»tu ditzala orrelako erriak.....Beste
zembait gauza egoki ere, esaten dio Otae-
gi-ko On Claudiok Euskal-erriaren zuzen
dariari, baña, uste det asko dala ezarri
dedana, ezagutu dezan irakorleak, nola
egin dan iturri ori, nondik ekarri dan,
zembatkosta dan, bere bendizioan izan zi-
ran pestakin.

Luzeegi egiten ari zait ziazalde onen eraiskuna edo osagarria eta bukatzerarena, uri bertako Mariaren alaben billerako aizpa-lenenak, beste probintzi onetako billerakoai inzkribitu dien eskut-itz batekin.

Ekustean zabaltzen zijoala baztar askotan Guadalupeko Birgiñarenzat jaiera, gogoan zerabilten askok, nola egingo otezan Elizacho onetara erromeri ots-aundi-ko bat.

Motibo onegatik bertako Apez-aita On Joakin Ollokoak, deitu zien, Apaiz-aurreneko-barruti onetako Mariaren alaben billerako aldimaitzai; bildurik, bada, igarodan Otsai-lleko amabigarren egunean eta egiñik Elitz-punzio eder bat, nun geyenak artu zuten Jaun-aundia, bazkal ondoan adierazi zuan bere pensamentua, eta guziak eranzun zuten, pozez beterik etorriko zirela, bein da berriz, baldin artarako, Apezpiku chit-argidotarraren baime-na irichitzen bazan.

Ezkeñi zien Bikario Jaunak urrengo egunetik adieraziko ziola, oen asmo eta naya. Ez dago zer esanik, nolako atsegiña artu duan gure Apezpiku chit-argidotarrak donzella gazteak daukaten asmo santu onekin, berealaşe, aprobatu du erromeri au, emanaz bere bendizioa, eta arazergatik inzkribatu dien emengo Mariaren alaben aizpa-lenenak probinzi onetako bere lagunai, ezartzera noan eskutu-itza.

» Nere aizpa maiteak Jesus eta Mariagan: Oraindik badirau nere biotzak artu zuan atsegin gozoa, ekustean etorri zirela guri agur egitea, Apaiz-aurreneko-barruti edo Arziprestazgo onetan dauden Mariaren alaben aldimaitzak, Gualalupen egin zan punzioan Jesus eta Mariaren biotzetan sartzeko, «garbitasuna» deritzayon iturri edo aintziran, izen ta lonbriak, ez bakarrik gure billerakoak baita ere Jesusen biotzaren billeran sartuta daudenenak.

» Nere bizi guzian izango det, bada, Ot-sailleko amabi-garren eguneren oroipe-

»na, batez-ere zergatik egun onetan sortu
 »zan Guipuzkoako Maria Santisimaren
 »alaben billeran sartuta dauden guztiak
 »erromeri bat Guadelupera egiteko pensa-
 »mentua.

«Galdetu zigunean gure Zuzendari edo
 »Apez-aita Jaunak, ea egin zitekean ai-
 »patu dedan erromeria, guziak erabat,
 »pozez beterik, eranzun giñion bayetz.

»Gauzak, bada, gure nayaren moldez
 »datoz.

»Gure aita eta Zuzendari leenena, Chit-
 »argidotar Vitoriako Apezpiku Jaunak,
 »ematen du baimena bere bendizioarekin
 »batera, egin dezan gure billerak erro-
 »meri ots-andiko bat, Ondarrabiko Maria
 »Santisima Guadalupekoaren Elizachora.

«¡Berri-on bada, aizpa maiteak; berrion.
 »Uste det, poztu eta atsegiñez beteko
 »zeratela, zeren laister guziok bilduko ge-
 »ra, gure Ama Birgiña garbiaren mantu-
 »pe gozoan.

»Neretzat da gauza onrragarria zuei
 »eginbide au adierazteko eman diraten
 »enkargua, atzenena eta diña-ezena ba-

»naiz ere billera santu onetan, izango
 »naiz aurrenekoa zuek serbitzen onera
 »zatoztenean eta lagunduko dirate one-
 »tan nere aizpa guziak.

»Alozte, bada, aizpa nereak, konpian-
 »tza guztiarekin; emen arkituko dituzute
 »lagun kariñosak etartuko zaituztenak
 »pozez beterik. Adierazi dezayogun mun-
 »duari Gipuzkoako Mariaren alaben bi-
 »llera duan indar eta zuzenta-una, eta
 »Zeruko Erregiñari diogun jayerak sustrai
 »irmoak dauzkala gure biotzetan, eta au-
 »dala gure amacho maiteak ulzi zigutēn
 »prendarik estimagarriena.

»Erromeri onetako autatu degun egu-
 »na da, Uzta-illaren bigarrena, zeñetan
 »Eliz-ama santak zelebratzen duan Santa
 »Isabel bere lengusuari, gure Ama gar-
 »biak egin zion ikustatzea.

»Korrika mendiz mendi joantzan Bir-
 »giña, ikustatzera Isabel bere lengusua;
 »guazen gu ere orobat Guadalupera, ima-
 »giña santuaren aurrean auzpezturik
 »oloiz egitera. Bai, Mariari eskatuko dio-
 »gu, Eliz-ama-santagatik, gure Aita San-

»tuagatik, eskatuko diogu Mariari gure
 »Españagatik, gure probintzi maiteagatik;
 »eskatuko diogu guregatik eta gureakga-
 »tik: bilduko gera alkar ezagutu dezagun,
 »ama baten umeak geran bezela, eta
 »egun batean zeruko Erregiñ onek bildu
 »gaitzan zerutarrakin.

»Au izan beardu eta izango da gure
 »pensamentu bakarra. Modu onetan
 »emango diogu gloria Jaunari, onorea
 »Mariari, atsegiña Aita Santu Leon XIII-
 »garrenari, poza gure Zuzendari lenen
 »dan Chit-argidotar Apezpiku Jaunari.

»Gure Erredentore maiteak iñuriko di-
 »tu bendizio ugariak, bere Ama garbia-
 »ren alaben izenarekin onrratzen geran
 »guztiotara, eta gure eriotzako orduan
 »atsegiñez beteko gera, zeren egun batez
 »bildu giñan Mariari donekidatuta da-
 »goan Elizacho batean, eta berak bildu-
 »ko gaitu zeruan, nun izango degun beti-
 »ko zoriona.

»Aurrez, adieraziko zaizute gai onetara-
 »ko artzen diran neurriak.

»Bitartean, aizpa maiteak; agindu zayo-

»zute zuenari, zeñak muñ egiten dizuten
 »zuen eskuak. Ondarrabiko billerako
 »Aizpa-lenena-Fermina Laborda-koa--Ot-
 «sa-illaren 25-garren egunean 1885-ga-
 »rren urtean.

Bikario Jaunak ere bere aldetik inzkri-
 batu die probintzi onetako parroko edo
 apez-aita guztiai, egin dezatela alduten
 guzia, ots-andikoa eta sonatua izan de-
 din Mariaren alabak egitera dijoazten er-
 romeri au; eta sinistu diteke ala gertatuko
 dala, denborak aditzera emango duen
 bezela.

ATZENDEA.



AMA BIRGIÑA
GUADALUPE-KOAREN

BEDERATZI-URRENA

ZEÑAREN IMAGIÑA AGERTU ZITZAIEN
BI ARZAI GAZTERI, URI NOBLE, LEYAL,
ERRUTSU ETA BETI PIEL DAN ONEN
IPAR ALDERA DAGOAN JAIZKIRELGO
MENDIAN

ETA

BERAREN DEBOTO BATEK

EUSKARAZ JARRIA.



Milla zortzireun
eta laroguei ta bost garrren
urtean.

Faint, illegible text at the top of the page.

Second block of faint, illegible text.

Third block of faint, illegible text.

Fourth block of faint, illegible text.

Large block of faint, illegible text at the bottom of the page.

*Belaunicatu zaitez Guadalupeko Ama
Birgiñaren imagiña baten aurrean
eta zure biotza Jaunagana jasorik,
asiko zera egun-oro era
onetan.*

LENENGO EGUNA.

Gurutze santuaren † señaleagatik, gure † etsayetatik, libra gaitzatzu † gure Jauna eta Jaungoikoa. Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

EGUN-OROKO PRESTAERA.

Jaungoiko guzialduna. Trinitade guziz Santua: Zuk apaindu erta ornitu zenduan gure bitarteko dan Ama gozoa, beti Birgiña Maria, zeruko doai grazi eta edertasun ugariakin; eskerrak eman nai dizugu, bada, gure Ama Santari egin ziniozun mesede paregabe oek-gatik, egiñaz onen

onrran ta alabanzan bederatzi-urten bat, eta bear bezela egin dezagun, iguzu, Jauna, gure pekatuen damutasunik aundienetakoa, eta esan dezagula biotz biotzetik: damu degu, Jesusmaitea, zure kontra pekatu egiña, eta damutasun au sortzen da gure animetan, ez zeren zerua galdū degun, ezta ere infernuaren beldurrez, baizik zeralako ontasuna bera eta maitagarria gauza guzien gañean, ez geyago pekaturik, Jauna, naiago degu galdu milla bider bizia, zu berriro ofenditu baño. Amen.

LENENGO EGUNERAKO

OTOIZ-ALDIA EDO ORAZIOA.

¡**O** zorioneko aur Maria Santa eta gure Ama maitea! Egun sentiko izarrak munduari adierazitzen dion bezela, laster jayoko dala eguzki pozgarria; ala zure jayotzan izan ziñan, zeruko eguzki Jesus Jaungoikozkoaren etorrera adierazi zenduena. Arren, bada, entzun itzatzu gure eskae-

rak, eta irichi zaiguzu zure errai garbietan aragia artu zuan arrengandik gure pekatu guzien barkazioa, eta gure biotzak ez ditezela egon itsatsirik munduko ondasun gezurtietara: irichi zaiguzu ere, Guadalupeko imagiña onen aurrean, bederatzi-urten onetan eskatzen dizuguna, baldin beintzat bada gure animen onerako. Amen.

Orain konpianza aundi batekin, eskatuko dio bakoitzak, geyena zer naiz duen, Guadalupeko Ama gozoari.

EGUN ORO EGIN BEAR DAN

AZKENEKO OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

! **O** Jesusen Ama, pekatuaren kutsurik bageko Birgiña garbia! Zu izan zian munduan gizonentzat ama errukitsu bat, eta orain zeruan zera onen bitartekorik indarsuena. Guk eskerrak ematen dizugu gure amodioz Jaizkibelgo mendi onetan agertu nai izan zendualako: eta sinismen

osoan gaude, zure bitartez Jesusek egingo digula grazi eta mesede asko, batez ere emango digula gure pekatu guzien konfessio on bat egiteko doaya. Argaitzatzu, Maria, zure mantupean, zeren zure semerik leyalenak izan nai degu. Senda itzatzu miñez daudenak, lagundu eyezu ichasoko baga asarratuen artean dabil-tzen mariñel gañoai, ez zaitez aztu erio-tzako tranze estuan daudenakin, erruki zaitea purgatorioko anima bedeinkatua-kin, itzuli itzatzu zure begi errukitsuak, zure onrran bedederatzi-urten au egiten ari geran guziotara, gure egun laburrak igarotzean, zurekin bizi gaitezen betiko-tasun guzian. Amen.

Orain kantatzen dira, azkenean ezarri ditugun gozoak.

BIGARREN EGUN-ORAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

¡O aur eder Maria Santa, doakabe guzien poz eta atsegiña! Zure jayotza mira-

garriak, pozez eta atsegiñez bete zituan linboko illuntasunean bizi ziran anima tristeak: Iguzu, bada, Guadalupeko inagiña orretan onrratzen zaitugun guziori, gure animako illuntasunak desegintzeko grazia, eta gure begiak išuri ditzatela pekatuen damutasuneko negar malko gozoak, eta beste bederatzi-urten onetan eskatzen dizuguna, *baldin gure animen onerako bada. Amen.*

IRUGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

! **O** aur paregabea eta gure Ama Santa! Zu izan zīnan berezia andra guzien artean Jesusen amatzat, eta zure jayotzan atsegiñez bete ziran Trinitade guziz Santua eta zeruko aingeruak. Arren, piztu ezazu gure biotzetan Jaungoikoaganako amodio sutu bat, irichi ezazu justuentzat azken-iraupena, eta pekatarietzat Jaungoikoarengana biurtzeko grazia; gorde gaitzatzu guztiok, batez-ere bederatzi-

urren au egiten ari geranak, eta irichi zaiguzu guk eskatzen deguna, gure animen onerako bada. Amen.

LAUGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

¡O aur maitagarria eta gure Ama Santa! Zure jayotza miragarrian eskatu ziónion Jaunari negar malko askorekin gizonagatik. Eskerrak ematen dizugu errukitasun baztargabe orregatik, eta iguzu, zure aurtasuneko negarrak ez ditezela izan guretzat negar alperrikacoak, baizik gure erremediorako išuriak, ez zaite bada aztu pekatari gañoakin, batez-ere imagiña orren aurrean bederatzi-urren au debozioz egiten ari geranakin, eta irichi zaiguzu zure seme Jesusengandik eskatzen dizuguna, gure animen onerako bada. Amen.

BOSTGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

—

¡O aur doatsua eta gure Ama Santa! Zu jayo zinan bezin laster zeruko aingueruak ezagutu eta artu zinuuzten Erreginatzat, eta adierazi zuten euren poz eta atseguina kantu eta soñu miragarriak joaz eta kantatuaz. Poztutzea eta atseguinez betetzen gera gu ere, orrelako doayakin zeruko Errege Jainkoak ornitu zinuuelako, eta alkartu nai ditugu gure erregu eta eskaerak aingeru ederren kantakin batean: Arren, iguzu, bada, Amacho maitea, izan gaitezela zure Semearen jarraitzalle leyalak, eta gaur arte egindako utsegite guzieren damua, eta zure onrran egiten ari geran bederatzi-urten onetan eskatzen dizuguna, baldin gure animen onerako bada. Amen.

—

SEIGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

¡O aur garbia eta gure Ama Santa! Zure jayotzan etorri zinan mundura grazi eta doay guziakin apaindua, ain garbia, nun, zure sortze miragarrian ezan izan pekatuaren kutsu eta ez ere itzalik, zeren zugandik artu bear zuan aragia munduaren Salbatzalleak: Jaungoikoak egin zizun mesede oek guziakgatik erregutzen dizugu, garbitu itzatzula gure animetan, pekatuak utzi diguten arrastoak, ar dezagun komunio santuan, errespeto eta animako garbitasunarekin, zure sabeleko pruitu bedeinkatu Jesus-aundia; eta iguzu grazi au Guadalupeko imagiña orren aurrean bederatzi-urren au egiten ari geran guziori, eta beste eskatzen dizugun mesedeak, gure animen onerako badira. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

O aur miragarria eta gure Ama Santa! Zu jayo zīnan egunean eramān edo jaso zīnuzten zeruko aingeruak Jaungoikoaren eserleku edo tromuraño; eta eman zizun ezkubide aundiak zeruan eta lurrean zure Seme izan bear zuan Trinitade guziz Santuko bigarren Personak: ordutikan dezun alizan edo poderio aundiagatik, iguzu, imagiña orren aurrean bederatzi-urren au egiten ari geran guzioi, gure estadu edo bizimoduko eginbideai zuzen erantzuteko grazia, eta eskatzen dizugun beste mesedeak gure animen onerako bada, Amen.

ZORTZIGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

¡O aur erruki tsu eta gure Ama maitea! Zure jayotzan aingeruak zerura eramantziñuzten bezin laster, asi ziñan Jaunari gizonen alde erregu egiten; ezanaz, «biraldu zezala len bait len Profeten aotik eskeñia zeukan Salbatzallea:» Zure biotzak guretzat zeukan amodio paregabe onegatik, erregutzen dizugu, eskatu zayozula zur e errayetako Seme Jesusi, arren, erremediatu ditzala gure anima eta gorputzeko gaitz guziak, batez-ere Guadalupeko imagiña orren aurrean bederatzi-urten auegiten gaudenenak, eta baita ere irichi zai-guzu eskatzen dizuguna, gure animen onerako bada. Amen.

BEDERATZGARREN EGUNERAKO

OTOIZ-ALDI EDO ORAZIOA.

!O Ama Birgiña Guadalupekoa! Pekata-ri gañoen Ama errukitsua, ichasoko perillen artean dabiltzanen izar ederra eta gordetzallea eta gure bear guzi-guzietan, batez-ere gure animak zeruratzeko laguntzarik onena, aundiena eta seguruenena: Arren, zure jayotzetik oraindaño Jaungoikoaren Ama paregabea, eta gizon eta aingeruen Erregiña bezela artu eta zureganatu dituzun grazi eta mesedeak-gatik, guzaz oroitu zaite, gugatik erregutu zazu; gugana zure begi gozatsu oyek itzulitza-tzu, eta lagun gaitzatzu animako eta gorputzeko premietan, batez-ere eriotzako orduan eduki ezazu kontuan zer eskatu dizugun zure imagiñaren aurrean bederatzi-urten onetan, eta irichi zaiguzu Jesusengandik, baldin, beintzat, eskatu deguna gure animen onerako bada. Amen.



Cuadalupeko Ama Birgiñaren gozoak,



ASIERA EDO KANTACHOA.

*Aingeruen Erregiña
Zeruko izar argia
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia.*

1

Olearsoko mendian
Agertze miragarria
Kristauen probechurako
Egin zenduen, Maria;
Mesede aundi onegatik
Pozez dago erri guztia.
Kriztauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

2

Maitatutzen dezulako
Animen inozenzia
Bi gazteri egin ziñion
Zu, agertzeko grazia,

Ordutikan zera, bada,
 Gure esperantza andia.
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

3

Esitua izandu zan
 Bein batez Ondarrabia,
 Zugan zeukan konpianza
 Guadalupeko Maria;
 Garaiturikan etsayak
 Libratu zan gure erria,
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

4

Etorri zan zure echera
 Errege fede gabia
 Emen eracutsi zuben
 Berak zeukan arrabia,
 Zuri egindako burlak
 Eman zigun pena aundia,
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

Zeruko aingeruak eskuz
 Utzirikan Parrokia
 Guadalupera ekar zuten
 Zure imagiña garbia,
 Aditutzera emanaz
 Au zala zure tokia,
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia *Agur Maria etc.*

Kaptiboak jartzen badu
 Zugana fede guztia
 Bereala puskatzen da
 Esku-oñetako burnia,
 Aitortuaz, zu zerala
 Beraren libratzallia.
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

Itsasoko perilletan
 Dabiltzanen errukia
 Zuk dezu dudarik gabe
 Ama Birgiña Maria;
 Izan zaitez, bada, beti,
 Oyentzat izar argia,

Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

8

Kristau guzientzat zera
Ama errukigarria
Zuk sendatzen dezu miña
Baita poztutzen tristia;
Orregatikan dizugu
Jayera guztiz aundia,
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

9

Belaunikatutzen gera
Ama beneragarria
Eta zugaran jartzen degu
Esperantza chit aundia;
Eskeñirik gure anima
Ta gure biotz guztia
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria etc.*

Aingeruen Erregiña
Zeruko izar argia
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia.

ANTIPHONA.

Nativitas tua, Dei genitrix virgo, gaudium anuntiavit universo mundo: ex te enim ortus est sol justitiæ, Christus Deus noster, qui solvens maledictionem, dedit benedictionem et confundens mortem donavit nobis vitam sempiternam.

Nativitas est hodie sanctæ Mariæ virginis.
Cujus vita inclita cunctas illustrat Ecclesias.

OREMUS.

Famulis tuis quæsumus Domine, cœlestis gratiæ munus impertire: ut quibus beatæ Virginis partus extitit salutis exordium, nativitas ejus votiva solemnitas pacis tribuat incrementum. Per Dominum nostrum....etc.

NOTULA.

» **E**xtra octavam predictis versu et oratione illa verba: est hodie: solemnitas: mutantur in hæc: *recolitur commemoratio*. Hoc multorum quos consului, Perit. » Rubric. sententia docet.

GUADALUPEN

EGITEN DIRAN PUNZIOETAN KANTATU OI
DIRAN ITZ NEURTUAK.

1

¡Irun aldeko ibar ederrà
Zoragarria bai dago!
Agiri dira Oyarzun mendi
San Marzial da geyago:
Beste aldetik Larrun altuba
Urruña berriz beerago
Oyen ondoan Euskaldunentzat
Bost erri maite badago.

2

Begira, an bian Endaya
Eta bidasoako ibaya
Bere gañetik dator su ta gar
Burnibidezko Pasaya,
Ondarraitz dago beste aldera
Ta andik gorago da alaya
Euskaldun aundi Abadik duben
Jauregi berri galaya.

3

Lekurrik eder politenean
 Ondarrabiko Uria
 Milla gerretan leyaltasunez
 Beti gogoangarria
 Gorde beardezu beti zuretzat
 Ama Birgiña Maria
 Zabalzayozu zure mantuba
 Zeruko izarren argia.

4

Itsaso zelai zabal arroa
 Ez nazazula arritu
 Oroiazirik zenbat bider, zu,
 Odolez zeran gorritu.
 ¿Zenbat olatu-burrukaz dezu
 Milla ontzidi zatitu?
 ¿Zenbat dirade osin oyetan
 Zuk irinchi ta gelditu?

5

Baña zuregan arritzekoak
 Anai gureak badira,
 Oyarzabali, Okendo-tarraí,
 Eta Churrukaí begira

Ur urdiñ oyen bizkarrak irrist
 Balitz bezela aingira
 Ontziz lenengo Elkano batek
 Mundu osoa du gira.

6

Olaso mendi epaitz ederra,
 ¿Nola ez ekar gogora,
 Zu ekusteak, zu aitatzak
 Erromatarren denbora?
 ¿Zerbat jendedi antziña ziran
 Etorri zure albora
 Kantauritarrak mendetu nayez
 Beren uztarpe gaiztora?

7

¡Zorioneko Euskal-erria
 Inork mendetu gabea!
 Etzan arkitu anziñan zugar
 Gaizkin idolo zalea
 Jainko bakarra maite zenduben
 Zeru ta lurren jabea,
 Eta ondoren Salbatzallea
 Jainko beraren Semea.

¡Erri gañoa, kulpaz bazera
 Gaiztoen mende gelditzen!
 Zure legeak, zure itzkuntza,
 Iñill ai dira garbitzen
 Erreligio bakar da egia,
 Orrela dute azpitzten,
 Ta arrazoi utsa, ta arrotasuna
 Luzbelen eran goitutzen

MANTUPEA.

¡Jesusen Ama betor zugana
 Zeruratu nai dubena!
 Aingerubez-gain bakarrik zera
 Jaungoikoaren urrena;
 Itzerdicho bat esan zaiguzu,
 Ta agur naigabe ta pena,
 Pozezko malkoz bustiko degu
 Zure Mantupe barrena.

10.

Zure edertasun miragarria
 Oroitzen naute kanpoak,
 Udaberriko lorez jantzirik
 Zelayak eta basoak;
 Zure izenaren soñu maitea
 Chorien kantu gozoak,
 Orobat Eliz-otsaundiko onen
 Ezkillen dinbi-danboak.

11.

Itsaso asar asko pasarik
 Atsegiña dà portua
 Euri elurrez, turmoi-chimistaz
 Poz dà echean sartua;
 Ala izanik zu, gure portu,
 Eche ta leku dontsua,
 Atsegiñago dà guretzako
 Zure mantube gozoa.

12.

Nola dagoan chita-taldea
 Ollalokaren ondoan,
 Nola aurcho bat atsegiñez ló
 Inude baten besoan;

Ala ikusirik zeñ geran ergel
 Mundu triste ta gaiztoan,
 Pozez beterik gaude Birgiña
 Zure Mantupe gozoan.

13.

Zeruko Erregiñ Santuen poza
 Ta aingeruena bazerà,
 Esan zaiguzu zerala ere
 Ama gurea berbera,
 ¿Nola ez etor pekatariak
 Laister ta korri batera,
 Zure Mantupe zillar-urrezko
 Zeru orretan sartzera?

GURUTZEPERA.

14.

¡Guadalupeko arkaitza, zaude
 Inguru mallaz landua!
 Zure gañean Gurutz-galanta
 Ederra dago sartuba,
 Zabal da lodi iru puskatan
 Zeru aldera goitua,
 Karriatzeko berrogei idi
 Ez emen ziran naikua,

15.

Zori onean zaude gurutze
 Gipuzkoaren iskiñan:
 ¡Guadalupeko mendi politen
 Edergarri! ¿Nun ziñan?
 Zeru ta lurrak paketzekoa
 Kalbarioan baziñan,
 Ondo gaur emen zuregan Jesus
 Agurtatzera jo giñan.

16.

Egiaz toki egokia da au
 Erregutzeko Jaunari,
 ¿Arkaitz gogorak nork laundu ditu?
 ¿Nork ekin zion lanari?
 Amabost Gurutz aundik diote
 Koroya jarri plazari,
 Gurutz bidea ibill gaitzen
 Gira bat eman berari

17.

Onrra zerate Gurutz oyekin
 Ondarrabiko gendeak,
 Done Pedroren anai-billera,
 Erri ta portu aldeak;

Fernanda, Uhagon, Amestoi-koak
 Orobat Apaiz nobleak,
 Arkoll. ta kostar Jaizubitarrak
 Eta menditar semeak

18.

¿Ekus dezute arratsaldean
 Goibeldetutzen eguna,
 Zazpi kolorez jantziarik dagon
 Uztargi eder chukuna?
 Orobat gutzat da Gurutzea
 Pakezko arku pozduna,
 Zeru ta lurren bitartekotzat,
 Jainkoak eman ziguna.

19.

Gu erosteko or iñur zuben
 Jesusek bere odola,
 Or eman zuben bere bizitza
 Errugabea zegoela:
 Atozte, bada, Gurutzepera
 Au da zeruko arbola;
 Nor nai zerura igo-dezake
 Bere itzalean dagola.

Atozte, atozte Gurutzepera
 Munduko gaiztakeritik,
 Demboraz alde, demboraz iges
 Egun gaisto ta gorritik.
 Egun gorria goritutzen dan
 Pekatu beltzen erdoitik:
 Pakeak egin Jainkoarekin,
 Damu biotzen erditik.

¡Bai gure Jesus! Damutzen gera
 Ainbat pekatu egiña...:
 Apaizen bidez kenduko degu
 Oker guzien zikiña.
 Lagun zaiguzu,, arren, ontzeko,
 Zuk, ama maite Birgiña
 Eta iraupenez zeruratzeko
 Egin gaitzatu, gu diña....Alabiz¹

1 Itz neurtu oek inzkribatu zituen A. Aranak 1878 -garren urtean, Aboztuaren 19.-garrenean, gurutze aundiaren peñan esseririk zegoala.

SANKRISTI GAÑEKO

*Ganbarachoa edo KAMARIÑA egin zane-
tik urte-oro ematen da meza, komul-
gatuaz egun onetan, (zeñadan Uztaila-
ren bia) Mariaren billerako alaba as-
ko; ara emen punzio onetarako A. Ara-
nak egin zituan itz-neurtuak:*

1

Jainko-aren amorez
Biotza sutua
Aizearen egalak
Baño ariñagoa,
Korrika mendiz mendi
Birgiña dijua
Ikustatzera Isabel
Bere lengusua.

2

Guazen orobat ariñ
Birgiña-ren gana
Biotzean degula
Aur Jesus laztana;

Kristorekin bagoaz
 Gu berarengana
 Naita ez etorriko
 Da bera gugana.

3

Jesus eta Maria
 Billa alkarrekin
 Zorion izateko
 Zeruban herekin;
 Bata besteangandik
 Ezin du aldegin
 Lenago zeru-lurрак
 Austuta desegin.

4

¡Judako apaiz prestu
 Zakariaz ona!
 Echean sartu zatzu
 Gaurtik zoriona;
 Birgiña batek dakar
 Jainko ta Gizona,
 Bere erray-garbietan
 Jargoitu zayona.

5

¿Ekus dezu Isabel
 Poz-poz dabilela?

Mariaren izketa
 Aitu bezin bela,
 Atsegiñez dardaraz
 Sentitu du sabela,
 Ta aurra bera barruan
 Saltoka bezela.

6

Digula guziori
 Ongi eracuste,
 Birgiña-Amak gaur ondo
 Bedeinká zaituzte,
 ¿*Jesus eta Mariak*
 Maite bagaituzte
 Zeren ez mesederik
 Andienak uste?

7

Guk ere jarrai-tzagun
 Santuen bideak
 Animak salbatzeko
 Eziñik obeak;
 Topatu-arren noizbait,
 Arantza-larteak,
 Biguiñ dira bertutez
 Ta arrosaz beteak.

AMA GUADALUPEKOARI

bere devotoak egiñ oi dioten AGURRA.

A. Aranak egindako itz neurtuak.

1.

¡Agur Jesusen ama
Birgiña maitea!
¡Agur ichosoko izar
Distiatzallea!
¡Agur zeruko eguzki
Pozkidaz betea!
¡Agur pekatarien
kaya ta estalpia.

2.

Agur gizonen Ama
Zeruko erregiña
Ama gozo chit maite
Amorezko piña;
Zuregandik joatea
Gauza da samiña
Agur nere biotzeko
Poz eta atsegiña

Agur gure poza ta
 Atseguin guztia,
 Atsekabe danetan
 Gozakai ezta!
 ¡Agur Birgiña eder
 Chit zoragarria!
 Arzazu biotza ta
 Torizu bizia.

Zuregandik alde
 Biotzak ezin du
 Zuregana dijoa
 Zugan bizi nai dú:
 Birgin paregabea
 Bedeinka nazazu
 Agur Ama nereá
 Agúr, agúr, agúr.

GUADALUPEN

KANTATZEN DIRAN MAYATZEKO «LORE-
KANTAK.

ASIERA EDO KANTAERA.

*Guazen, guazen guziok
Birgiña Ama-gana
Eskeiñtzera biotzez
Lorecho eder bana.*

1

¡Ama biotzekoa!
Birgiña garbia
Zeruko edertasuna
Izarren argia.

2.

Zuri eskeiñtzera galoz
Lore lurrekoak
Zugandik artutzeko
Gero zerukoak.

95

3

Lorez estali dira
Mendi ta zelayak
Ostoz apaindurikan
Arbola galayak.

4

Baratz eder onetan
Dago uda berria
Beti dago Eguzkia
Beti on egualdia.

5

Bakarrik guk daukagu
Mundu char onetan
Pekatuzko negua
Sarri biotzetan.

A. ARANA-RENAK

ASZENZIO EGUNEAN

GUADALUPERA EGITEN DAN ERROMERIAN
KANTATU OI DIRAN ITZ-NEURTUAK: ON
CLAUDIO OTAEGI-KOAK FRAI LEONEN
ASCENSION DERITZAYONETIK, EUS-
KARARA BIURTUAK.

Jesukristoren Igoera edo Igandean.

1

¡Ta uzten dezu, Arzai Santua
Bakardade ta lantuaz,
Ibar ondokai ta illun onetan
Zure gendea emen, beraz;!
¿Ta zu autsirik aize garbia,
Betiko bizira zoaz.?

2

Len doatsuak, ta orain tristeak
Ta atsekabeak diranak
Azitakoak zure laguntzaz.
Zure mendetik kenduak,
¿Nora itzuliko dituzte, bada,
Orain euren sentierak?

3

Zure arpegiren edertasuna
Ikusi zuten begiak,

¿Zeri diote begiratuko
Bekaitzen baditu danak?

¿Zer izungo ez du gor ta doakabe
Itz-eztia adi zizunak

4

?Zeñek parako dio orain brida
Ichas genasi oneri?

Gordea zaudela ¿nork arandea
Aize gogor iratuari?

¿Nork eracutsiko dio bidea
Idorrera ontziari?

5

¡Ai! odei naia poz labur ontaz ere;

¿Zer? ¿zera kejalzen?

¡Zeñen ederki urruntzen zeran:

¿Nora arin dezu egaatzen?

Zein bearrean ta zeñen itsa

¡Ay! gaitzu lajatutzen.

*Igaro dan urtean egin dira Gua-
dalupen bi iñurri; bati deitzen zayo
«Ongietorri» eta besteari «Garbitasu-
na»; ara, bada, emen, iñurri oek be-
deinkatu zirenean kantatu ziran itz
neurtuak, eta oneiarako A. ARANAK
egiñak.*

JAIKIBELPEKO

AMA BIRGIÑAREN ITURRIAI.

« Ongui etorri », esaten digu
Birgiña Amaren ezpañak,
« Ongi-etorri » digute pozik
Iturri gozo labañak,
« Ongi-etorri » Euskal-erriko
Ibar ta mendi lirañak
« Ongi-etorri » Jaizkibeleko
Tontor erpiñen gañ-gañak

2.

« Ongi-etorri », danok kristabak
Birgiña Amaren aurrera;
« Ongi-etorri » onen eskutik
Zeru graziak artzera,
Iñurtzen ditu guztiz ugari
Beti gizonen aldera,
Nola dakarren ur gozotsuba
Iturri batek bestera.

3.

Ongiro bada ur ots autsia,
Egarri dana pozteko,
Ongilleago dá milla bider

Animak alai jartzeko
 Birgiña Amaren begiratu bat,
 Eta biotzak ontzeko,
 Bere mesede atal izpi bat
 Dá gauza paregabeko.

4.

Ongi guzien iturburua
 Jaungoiko bera izanik
 Birgiñan bidez bear dirala
 Gugana gauzka esanik:
 Jakiñik ezin degula ezer
 Bere bitartez ez danik,
 ¿Nola joan ez pozez korrika
 Amarengana lendanik?

5.

Indarra eta garbitasuna
 Betuliako uretan
 Judit ederrak arkitu zuben
 Premirik; aundienetan
 Iturriko ur ona sentirik
 Arpegi, ezku, oñetan,
 Jaunari oloiz zeuzkan beste bi
 Iturri begi bietan.

6.

Ala gu ere, damu onezko

Malkoz bagera bustitzen
 Sakramentuban geron barrunak
 Aiña ditugu garbitzen,
 Kemen osoa ta alaitasuna
 Bertuterako sentitzen
 Eta etzayen eraso denak
 Ostikopean zatitzen.

7.

Grazia oyen jatorri zeran
 ¡O Jainko Jesus nerea!
 Nai izan dezu gizalatasuna
 Birgiñagandik artzea:
 Gure amorez aldare-etan
 Iturri bizi jartzea
 Geurí emanik gere amatzat
 Zedorren Ama maitea.

8.

Juango-gea, bai Jesus, zugana
 Jainkozko itur burura
 Garbitu eta indartutzeko
 Datorrenean estura;
 Egako gera Birgiña Amaren
 Mantupe gozo Santura
 Biyon amorez urtu gaitezen
 Igo artean zerura.

GUIPUZKOAKO MARIAREN-ALABAK


GUADALUPERA DATOZTENEAN, (UZTA-
ILLAREN BIAN,) KANTATU BEAR DUTEN

KANTACHOA.

On Karmelo Echeгарai-koak Zuma-
yatarrentzat eguin zuanaren antze-
koa, eta musika On Antonio True-
bat ezarria.

KANTACHOA.

*Guadalupeko Ama Virgiña
Mancharik gabe sortua
Zugana gatoz eskeñitzera
Biotza, anima, gogua.*



1

Jaizkibelera zu gechi ziñan
 Lekura gatoz guztiak
 Gure biotzak irazekirik
 Aditutzean kanpayak;
 Guztiok gatoz Ama zugana
 Eskatutzera doayak
 Arren, ez gaitzan, ez menderatu
 Munduko gerran etsayak.

2

Itsaz ertzean jayotakoak
 Benaz zaituzte maitatzen
 Beren penetan Maria zugan
 Dute gozoa biliatzen;
 Dakitelako nola dituzun
 Baga apartsuak umiltzen
 Nola dituzun gau illunean
 Ontzi gañoak zuzentzen.

3

Izar ederra zera Maria
 Dagonarentzat illunik
 Iturri garbi osasuntsua
 Dagonarentzat eririk;
 Zuregandikan datorren grazi

Miragarriak sendarik;
 Illunak argi, eriak ongi
 Gelditzen dira bertatik.


4

«Garbitasuna» nai badezute
 Zuen gorputz ta animetan
 Atozte atozte garbitutzera
 Guadalupeko uretan;
 Maria beti izan dedilla
 Laguntza zueu lanetan
 Pozkidatuko gaitu, seguru,
 Gure pena guztietan.

5.

Ongietorri Gurdalupera
 Donzella on da garbia,
 Ez da aztuko zure bisitaz
 Zeruko Errégiñ Maria;
 Orrek, zuretzat, irichiko du
 Bear dezun ainbat grazia
 Izan dezazun ill ondorean
 Beti, Betiko gloria.

A. M. D. G.



ARKI-BIDEA.

Garren
orrian.

Ondarrabiko Ama Guadalupe-koaren ziazaldea edo kondaira.	5
Olearse edo Jaizkibel.	6
Noiz aguertu zan Birgiña Guadalupekoa.	9
Nori ta nolatan agertu zan Ama Birgiña Guadalupekoa.	13
Birgiña Guadalupekoaren Elizachoa zenbat aldiz ekidatua eta sutua izan dan.	17
Zenbat aldiz Jachia izan dan Ama Birgiña Guadalupe-koaren imagiña benegarria Ondarrabiko Elizara.	19
Ondorrabi-ko esitze oroimengarria 1678-garren urtean.	22
Maria Santa Guadalupe-koaren bitartez gertatu izan diran eginkizun miragarriak.	27
Recuerdo de agradecimiento á Maria.	33
Azkeneko amabost urte oetan Guadalupe egin diran lanak, punzio, erromeri eta beste zenbat gauza irakorleak ekusiko ditunak.	34
Eraizkuna edo osagarria.	43
Ama Birgiña Guadalupe-koaren bederatzi-urrena.	61
Belaunicatu zaitez Guadalupeko Ama	

Birgiñaren imagiña baten aurrean eta zure biotza Jaunagana jasorik, asiko zera egun-oro era onetan.	63
Egun oro egin bear dan azkeneko otoiz-aldi edo orazioa	65
Guadalupeko Ama Birgiñaren gozoak.	75
Guadalupen egiten diran punzioetan kantatu oi diran itz neurtuak.	80
Sankristi Gañeko ganbarachoa edo kamariña egin zanetik urte-oro ematen da meza, ara emen punzio onetarako A. Aranak egin zituan itz-neurtuak.	89
Ama Guadalupekoari bere debotoak egiñ oi dioten acurra. A Aranak eguindako itz neurtuak.	92
Guadalupen kantatzen diran Mayatzeko lore-kantak.	94
Aszenzio egunean Guadalupera egiten dan Erromerian kantatu oi diran itz-neurtuk.	96
Jaizkibelko Ama Birgiñaren iturriai.	98
Guipuzkoako Mariaren-alabak Guadalupea datoztenean, (Uztaillaren bian,) kantatu bear duten kantachoa.	101



101
102
103
104
105
106
107
108
109
110
111
112
113
114
115
116
117
118
119
120
121
122
123
124
125
126
127
128
129
130
131
132
133
134
135
136
137
138
139
140
141
142
143
144
145
146
147
148
149
150
151
152
153
154
155
156
157
158
159
160
161
162
163
164
165
166
167
168
169
170
171
172
173
174
175
176
177
178
179
180
181
182
183
184
185
186
187
188
189
190
191
192
193
194
195
196
197
198
199
200





